




# ELIKAGAI ETA OINARRIZKO PRODUKTUAK ETXERA ERAMATEA BEHAR DUZU?

Bakioko Udalak nagusiei zein beharrizan bereziak dituzten herritarrei elikagaiak zein oinarrizko produktuak etxera eramateko **laguntzaileen sarea martxan** jarri du. Laguntza-zerbitzu honen beharra baduzu:

**1 Deitu udaletxera** eta adierazi zein beharrizan duzun:

 94 6194 001

 07:30-14:30 / 16:30-20:30

**2** Udaleko langileak **boluntario bati zure datuak emango dizkio** zurekin harremanetan jartzeko.

**3** Aldi berean boluntarioak **zerbitzua segurtasunez emateko informazioa** jasoko du:

- ▶ Hartu beharreko prebentzio neurriak.
- ▶ Komertzio bakoitzak egoera honen aurrean eskeintzen dituen aukerak.

**Herriko komertzio guztiak prest**  
agertu dira kolaboratzeko

**4 Boluntarioekin adostuko duzu** erosketak nola egin eta nola ordaindu.